



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakari zapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a

Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

22. ERABAKIA: HELBIDERATZEA LAGUNTZEKO FUNTSAK ESLEITZEKO HITZARMENARI ERATXIKITAKO 1. GEHIGARRIA

Auzapezak kontseiluari oroitarazten dio 2020/10/24ko Elkargoko Kontseiluaren erabakiaren arabera, Euskal Hirigune Elkargoak "Helbideratzea" laguntzeko 6 000 €ko funtsa esleitu duela helbideratze taulak erosteko eta ezartzeko, ORTZAIZEko herriak eskatu ondotik;

Helbideratze taulen erostea eta ezartzea gibelatua izan denez, auzapezak adierazten du ORTZAIZEko herria eta Euskal hirigune Elkargoaren artean izenpetutako "helbideratzea" laguntzeko funtsa esleitzeko hitzarmen hori luzapen gehigarri baten gaia izaten dela, jatorrizko hitzarmenean aipatutako epea 36 hilabetetara luzatuz (hots 18 hilabete gehiago), jatorrizko hitzarmenaren izenpetze egunetik goiti.

Auzapezak adierazten du 2021/12/18ko Elkargoko Kontseiluaren arabera Jean-René ETCHEGARAY Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariak gorago aipatutako gehigarria onartu duela.

Bere iritzia agertzera gomitaturik, Herriko kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzun ondotik, eta eztabaidatu ondotik:

ONARTZEN DU gorago aipatutako hitzarmenaren 1. gehigarria,

BAIMENA EMATEN DIO Jaun Auzapezari gai honi lotutako gehigarri eta beste dokumentu oro izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko martxoaren 1ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/03/15ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/03/15ean.

